

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

**GAIA: GUFE-KO LAN-POLTSAK
KUDEATZEKO IRIZPIDEAK ALDATZEKO
ERABAKI-PROPOSAMENA**

Gobernu Batzordeak 2018ko apirilaren 13ko ohiko bileran onetsi zituen GUFeko lan-poltsak kudeatzeko irizpideak, eta 2018ko apirilaren 20ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (76. zk.) argitaratu ziren.

Proposamen honen sorburua da irizpideak ahalik eta modu zehatzenean egokitu behar direla aplikatu behar diren errealitatera, hain zuzen, bi egoera hauetara:

- Erakundeko lan-eskaintza publikoak; horren eraginez, GUFEn dagoeneko zerbitzuak ematen ari diren pertsonentzako lanpostu hutsen eskaintza arautu behar da.
- Errelebo-kontratu bati lotutako erretiro partziala hartzeko baldintzen aldaketak; horren eraginez, halako kontratuak ere iraupen luzeko kontratuetarako lan-poltsan sartu behar dira.

Egoera horien edukia eta nondik norakoak aintzat hartu eta aztertu dira aldi baterako Lan-poltsen Jarraipen Batzordean nahiz, ondoren, aurtengo martxoaren 27an, Erakundearen Negoziazio Mahaian, non ordezkariak duten zentral sindikalek ere parte hartu duten. Ondorioz, irizpideei buruzko dokumentuaren bigarren artikulua osorik aldatu behar da, eta hirugarrenean 5. atala gehitu behar da. Beherago jasotzen dira aldaketa horiek.

Beraz, adierazitakoa oinarri eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen estatutuak aldarazteari buruzko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 5. artikuluan xedatutakoarekin bat, Gobernu Batzordeari

Ref.- FMR/Letrado Asesor

**ASUNTO: PROPUESTA DE ACUERDO DE
MODIFICACIÓN DE LOS CRITERIOS DE
GESTIÓN DE BOLSAS DE TRABAJO DEL
IFAS**

Los criterios de gestión de bolsas de trabajo del IFAS fueron aprobados en Junta de Gobierno, en su reunión ordinaria de fecha 13 de abril de 2018 y publicados en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 76 de fecha 20 de abril de 2018.

El origen de la presente propuesta se fundamenta en el objetivo de adaptar los criterios de la forma más precisa posible a la realidad en que deben ser aplicados, y concretamente a estas dos situaciones:

- Ofertas Públicas de Empleo en el Instituto, lo que deviene regulación del ofrecimiento de vacantes a personas que ya están prestando servicios en el IFAS.
- Cambios en las condiciones para acogerse a la jubilación parcial vinculada a un contrato de relevo, lo que deviene su inclusión en la bolsa para contratos de larga duración.

Su recta expresión y alcance han sido objeto de consideración, primero, en el seno de la Comisión de seguimiento de Bolsas de contratación temporal y ya, después, en la Mesa de Negociación del Instituto, con la participación de las centrales sindicales allí representadas, en su reunión de 27 de marzo de los corrientes. Su resultado se concreta en la necesidad de modificar los artículos segundo, en su integridad, y tercero con la incorporación de un apartado 5, de aquel documento de criterios, en la forma que luego se expresa.

En razón de lo expuesto y conforme dispone el artículo 5 de la Norma Foral 4/2001, de 30 de mayo, relativa a la modificación de los Estatutos del Instituto Foral de Asistencia Social de Bizkaia, corresponde a la Junta de



dagokio erregelamenduak egiteko ahala, erakundearen funtzionamendu egokirako komenigarri edo beharrezko deritzen arauak onetsiz.

Horregatik, idazki hau sinatzen duenak proposamen hau aurkezten dio Gobernu Batzordeari, onar dezan:

ERABAKI-PROPOSAMENA

Lehenengoa.- GUFeko lan-poltsak kudeatzeko irizpideak eguneratzea; horretarako, bigarren artikulua osorik aldatu behar da eta hirugarrenean 5. atala gehitu behar da. Aldaketon testua erabaki honen eranskin bakarrean jasotzen da, eta xedapen-zatiari lotuta eta gehituta geratzen da ondorio guztietarako.

Bigarrena.- Erabaki hau GUFEn iragarki-taulan eta web orrian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztia jakitun izan dadin. Jakinaraz bedi.

Hirugarrena.- GUFeko gerente andrea baimentzea erabaki honetan jasotakoak gauzatu eta garatzen direla bermatzeko behar diren ekintzak egin ditzan.

Gobierno el ejercicio de la potestad reglamentaria, mediante la aprobación de las normas que se estimen convenientes o necesarias para el adecuado funcionamiento de la entidad.

Por todo ello quien suscribe somete a la consideración de la Junta de Gobierno, para su adopción, la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO

Primero.- Disponer la actualización de los criterios de gestión de bolsas de trabajo del IFAS, en el sentido de modificar los artículos segundo, en su integridad, y tercero mediante la incorporación a su tenor de un apartado quinto -5-, cuyo texto se incorpora como Anexo Único al presente Acuerdo y queda unido e incorporado a su parte dispositiva a todos los efectos.

Segundo.- Disponer su publicación en el Tablón de Anuncios, Página Web del IFAS y Boletín Oficial de Bizkaia para su general conocimiento. Comuníquese.

Tercero.- Autorizar a la Sra. Gerente del IFAS para realizar las acciones que fueren precisas para garantizar su debida ejecución y desarrollo.

Bilbon, 2019ko martxoaren 29an / En Bilbao, a 29 de marzo de 2019

Eneko Gutiérrez Coterón

*Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko burua
Jefe de Departamento de Dirección de Personas*

Teresa Alba Zubizarreta

Gerente del IFAS



ERANSKINA

GUFE-KO LAN-POLTSAK KUDEATZEKO IRIZPIDEEN ALDAKETA

2. artikulua.– Lan-poltsa motak.

Lau motatako lan-poltsak daude:

- Lanpostu hutsak eta antzekoak betetzeko kontratueterako.
- Iraupen luzeko kontratueterako (lau hilabete edo gehiago).

Iraupen luzeko kontratutzat hartuko dira, betiere, honako ordezkapen hauek: haurdunaldiko arriskuaren eta amatasunaren ziozkoak, lanpostuaren erreserba duten eszedentziak, sindikatuan aritzeko liberazioak, euskara-ikastaroak, lanaldi partzialeko errelebu-kontratuak, amaiera-datarik ez duten edo lau hilabetetik gorako iraupena duten lanaldi-murrizketak, jatorria iraupen luzeko kontratu batean duten ordezkapenak eta lau hilabeteko edo gehiagoko zeregin-pilaketak.

Lanaldi-murrizketaren ziozko iraupen luzeko kontratu bat onartu dutenei kontratu osagarriak eskainiko zaizkie, titularra ez dagoenean haren absentzia betetzeko. Lanaldi-murrizketako kontratu bat onartzeak berekin ekarriko du plangintza aldian onartzea edo ukatzea dagokion plangintza osoa.

- Iraupen laburreko kontratueterako (lau hilabete baino gutxiago). Halakotzat hartuko dira, beti, ABEaren ziozko kontratuak eta antzekoak, bai eta lanaldi-murrizketaren ziozko lau hilabetetik beherako kontratuak ere.
- Presazko kontratueterako. Presazko kontratuak deritzenak betetzeko izango dira.

ANEXO

MODIFICACIÓN DE CRITERIOS DE GESTIÓN DE BOLSAS DE TRABAJO DEL IFAS

Artículo 2.– Tipos de bolsas.

Las Bolsas de Trabajo Temporal serán de cuatro tipos:

- Para contratos de cobertura de vacante y asimilados.
- Para contratos de larga duración, iguales o superiores a cuatro meses.

En todo caso, tendrán la consideración de contrato de larga duración las sustituciones por riesgo durante el embarazo, maternidad, excedencias con reserva de puesto, liberaciones sindicales, cursos de euskera, contratos de relevo a tiempo parcial, reducciones de jornada sin fecha de finalización o superiores a cuatro meses; las sustituciones que por asimilación tengan su origen en un contrato de larga duración y las acumulaciones de tareas iguales o superiores a cuatro meses.

A quienes hubieran aceptado un contrato de larga duración por causa de reducción de jornada, le serán ofertados contratos complementarios con motivo de la ausencia de la persona titular. La aceptación de un contrato de reducción de jornada implicará, en período de planning, la aceptación o renuncia del conjunto del planning correspondiente.

- Para contratos de corta duración, inferiores a cuatro meses. En todo caso, tendrán esta consideración los contratos por I.T. y similares, así como las sustituciones de reducciones de jornada inferiores a cuatro meses.
- Para contratos de urgencia. Servirán para cubrir los denominados contratos de urgencia.



3. artikulua.– *Lehentasuna.*

(...)

5. Lan-eskaintza publikoaren deialdia onartuta daukaten kategorietan eskaini ez diren baina ezinbestez bete behar diren lanpostu hutsak daudenean, onartu eta baztertutakoen behin betiko zerrendak onartzen dituen ebazpena argitaratzen denetik aukeratutakoen zerrenda argitaratu arte, behin bakarrik eta lehentasun-hurrenkeraren arabera eskainiko zaizkie lanpostu hutsak daudenei, betiere «eskaini gabeko» lanpostu hutsik betetzen ez badituzte GUFEn, kategoria berean.

Artículo 3.– *Prelación.*

(...)

5. Cuando se produzcan vacantes no ofertadas de cobertura imprescindible en categorías con convocatoria de OPE aprobada, en el tiempo que media entre la publicación de la resolución que apruebe los listados definitivos de admisiones y exclusiones y hasta la publicación de la lista de personas seleccionadas, se ofrecerán por una única vez, por orden de prelación, a las personas integrantes de la bolsa siempre que no ocupen vacantes “no ofertadas” en la categoría de que se trate en el propio IFAS.